

GOTZON GARATE GOIARZUN GOGOAN

Gotzon, edo Angelmari etxekoek deitzen zuten bezala, Gipuzkoako Elgoibarren jaio zen 1934.eko irailaren lehenean. Hamaika senideetatik gazteena, Anita bere arreba zaharrena baino 20 urte gazteagoa. Batxilergoa Bizkaiko Durango eta Nafarroako Xabierko Jesusen Lagundiaren ikastetxeetan egin zuen. Bietako oroimena zoragarria zuen, baina askotan errepi-



Urkiolan 1999an.

katzen zuen euskaltzaletu Durangon egin zela. Azpeitiko ikas-
kide eta adiskide batzuei esker. Bertan ohartu, jabetu egin zen
euskara eta euskaltasunaren garrantziaz. Gero jesuita izateko
hautua egin zuen eta ohiko ikasketei ekin, alegia, filosofia eta
teologiakoei. Berak aitortzen zuen berarentzat edozein gauza
ikastea jolas atsegina izaten zela. Bi karrera horien artean “Ma-
gisteritza” egin ohi dugu jesuitok, ikasketak bazter utzi eta bes-
telako lanen bat egiten dugu bizpahiru urtez. Probintziaburuak
galdeu zion ea non gustatuko litzaiokeen egitea eta Gotzonek
“euskara hobeto jorratzeko” adierazi zion Donostiako ikaste-
txera pozik joango zela. Baina Zaragozara igorri zuen. Beti
kontakten zigun urte zoragarriak pasatu zituela aragoitarrekin,
zuzen-nobleak baino nobleagoak zirelako. Gainera han erru-
siera ikasi zuen. Bai, Errusiatik herrira itzulitako gizonezko bati



Urkiolan 1999an.

euskara erakusten zion Gotzonek eta hark berari errusiera. Primeran etorriko zitzaion apaiztu eta gero bi udatan Moskura joateko familia komunista jator baten etxera eta marxismo-leninismoari buruzko ikerketak egin ahal izateko.

Oso hizkuntzazale izan da Gotzon beti eta ikasitako hizkuntza bakoitzaren ezagutza sakona izaten arduratu da. Euskara, gaztelera eta errusierarekin bezala baita alemaniera, frantsesa eta ingelesarekin ere. Latina eta greziera hizkuntza “zaharrak” ondo ikasi bazituen ere beren erabilera urria zela medio erdoildu egin zitzaizkion. Hizkuntzazale porrokatua izan da Gotzon eta batez ere euskararen maitale sutsua.

Suitzan prestatu zuen bere filosofia doktoradutza eta teologia Alemanian egin ondoren Euskal Herrira itzuli zen, Deustuko Unibertsitatera, hain zuzen ere. Bederatzi urte eman zituen ikasten kanpoan. Hala eta guztiz ere Filologia eta literatura mundua oso erakargarriak egiten zitzaizkionez Deustun bertan Filologia Hispaniara egin zuen, hori bai, gaztez inguratuta. Beti atsegin izan du gazte jendearekin ibiltzea, gazteekin nola-baiteko magnetismoa zeukala esan daiteke. Egia esan, gazteengan sinisten zuen, beti hurbildu nahi izaten zuen haiengana bere pertsona eta bere sentipenak, sinismenak eta jakintzak konpartitzeko. Ikasleek nola eramaten zuen gitarra eta nola abesten zizkien euskal kantu zaharrak ederki gogoratzen dute.

Harez gero Deustun eman du bere bizitza irakasle lanean jubilatuta arte eta idazten. Egia esan jesuiten elkartean ez da oso giro euskalduna eta euskaltzalea izan, baina berak beti izan du, kanpotik itzuliz geroztik, intuizio eta praktika berezi bat: euskararekiko maitasunak eraman du Euskal Herriko zazpi lurraldeetako zenbait baserritara. Laster konturatu zen euskaraz bakarrik zekiten haiek, elebakar zirenak, desagertzen ari zirela eta haiexek zirela euskararik hoberena egiten zutenak. Horregatik milaka ordu ematen zuen baserrietako sukaldeetan etxe-ko zaharrekin hizketan eta, aldi berean, bere betiko kuaderno-txoan idazten. Horregatik beti aitortzen zuen baserria zela be-

netako euskal unibertsitatea eta baserritarrak katedradunak. Zenbat atsotitz, esamolde, kontakizun, ipuin ez zuen bildu ondoren liburu mardulak eta elebarri atseginak euskaldungoari eskaintzeko eta euskara hobetzeko! Orain arteko liburu argitaratuak hogeita hamar inguru dira eta beste batzuk gordeta dauzkanak inprimategira eramateko zain.

Gotzon egondako zazpi lurraldeetako baserritarrek elkar ezagutu behar zutela-eta Iparraldeko Mixel Lekuona apez jatorra, “artzainen artzain” deitu du Josemari Iriondok idatzi berri duen haren biografiaren izenburuan, hasi zen zerbait mugitzen. Baserritar batzuk ezagutzen genituenez ideiari baietza eman genion eta laguntza esquin. Lehenengo biltzarra antolatu genuen Loiolan 1996.ean, eta beti maiatzaren 1ean, 2008. urteko maiatza arte, Arantzazun, non ezin izan dugun Gotzon eta Mixelekin kontatu, biak gaixorik baitzeuden. Urtero txan-



Aiherran, 1994an.



Xabier'en, 2006an.

dakatu ditugu euskal lurraldeak. Gure egitaraua xumea izaten da: biltzarra mezarekin hasten da, gero bertako tokiren bat bisitatu eta bazkaria egiten dugu. Giro ezin hobea sortzen da, ia ehun lagun izatera iritsi garelarik batzutan. Euskalki guztiak nahasten dira elkarren arteko harremanak aberastuz eta nola-baiteko euskarazko antiBabel eraikiz. Aipa liteke 2006.ean Xabierko Frantziskoren jaiotzaren 500.urtea zela eta Xabierko gazteluan batzartu ginela. Gogoratu genuen nola Gotzonek ikastetxe hartan sentitu zuen jesuita izateko deia. Zalantzarik gabe bertan sortuak, Jatsuko Frantzes euskararen zaindariak, bultzatu zuela hainbeste maite zuen euskarari ia bizitza osoa emateko. Bazkarian Pantxoia eta Peio izan genituen gurekin, beraz urteroko kantaldia baino bikainago atera zen hau.

Bukatzeko erran behar da Gotzonek bizitzan zehar eta bere gora-behera guztietan Jainkoa izan duela bidelagun. Horrek eraman du den-dena eta guzti-guztiak errespetatzera eta maitatzera. Hori izan zen bere ikurra, maitasuna, bere anaia jesuita Romanek gogorarazi zigun bezala hileta elizkizun jendetsuan. Jainkoa eta lagun-hurkoa maitatzea izan behar da kristauaren ohiko bizitza mota. Baina apaiz ere bazela, aspalditik uda partean laguntzen zuen New Yorkeko hispano eta beltzen parroquia batean. Han jende txiro eta etorkinekin egoteko aukera paregabea izaten zuen, bertan bere kristau sinismena eta gizatasuna barreiatuz.

Azken hilabeteak gogorak eta latzak egin zitzaizkion Deustuko Unibertsitateko jesuiten gaixotegian. Dena dela, goxo, indartsu, bakez, maitagarri eta, batez ere, esker oneko azaltzen zen denekin. Bere oinazeak pazientzia handiz eta umorea galdu gabe eraman ahal izan zituen. Bizitzan zehar Jesus Lagun Handiak indarberritzen zuen bezala horrela sentitu zen urriak 8 hil zen arte.

Gotzon adiskide eta maisu, AGUR, EGUN HANDIRA ARTE.

Koldo Katxo eta Txema Auzmendi